


2 FASEA (maiatzaren 25etik aurrera)

Ostalaritzaren irekierako baldintzak:



Ostalaritza establezimenduetako barneko mahaiak eta kanpoko terrazak erabili daitezke aurrez onartutako mahaien 50%gaz. Mahaien edota mahai-taldeen artean, gitxienez, 2 metroko tartea mantentzen dala bermatu beharko da.



Mahai edota mahai-talde bakoitzeko gehienezko persona kopurua 15 lagunekoa izango da. Mahai edota mahai-talde bakoitza, jarri daitezkezan persona kopuruaren arabera egokitutakoa izan beharko da, beti be, pertsonen arteko gitxienezko segurtasun distantzia mantentzea bermatuz.



Establezimenduetako eta terrazen ordutegia udal araudian ezarritakoa izango da.

Babes eta higiene neurriak:



Erabiltzaile batek/batzuk terraza erabili eta veste bat/batzuk jarri bitartean, terrazako akipamenduen garbitasun eta desinfekzio lanak egin beharko dira; bereziki aulki, mahai eta bestelako kontakturako gainazalena



Erabiltzaileen eskura jarri beharko dira hidrogel edota desinfektante banagailuak.



Erabilera anitzeko kartak erabiltea saihestuko da gailu elektronikoak, arbelak, kartelak edota veste baliabide batzuk hobetsiz.



Zerbitzu- baliabideak(plater eta bestelakoak, kristaleria, mahai-tresnak, mantelak, etab.) itxitako guneeetan gordeko dira. Hori posible ez dan kasuetan, bezero eta langileak dabilzan guneeetatik aparte gordeko dira.



Autozerbitzurako produktuak (musuzapi-banagailuak, zotz-ontziak, ozpin eta olio-botilak...) kendu egingo dira eta erabilera bakarreko formatuak hobetsiko dira. Posible ez dan kasuetan bezeroek behar dauan kasuetan soilik erabiltzeko zerbitzuak eskainiko dira.



Establezimendu eta local guztiek eduki beharko dabez sastar-ontziak, ahal dala tapa eta pedaldunak, eurretan zapi eta bestelako erabili eta botatzeko gauzak bota ahal izateko.



Bezeroek establezimenduetako komunak erabili ahalko dabez. Komunen gehienezko okupazioa persona bakarrekoa izango da, salbu laguntza behar daben erabiltzaileen kasuetan. Establezimenduetako komunak, gitxienez, egunean 6 aldiz garbitu eta desinfektatu beharko dira.